

«Ordoñez gezurretan ari da nire kontrako vendetta pertsonala egiteko»

Illarramendik Donostiako Turismo arduradun ohiari erantzun dio

Donostiako Udaleko EAren zinegotzia Imanol Illarramendik gogor erantzun die Gregorio Ordoñez hiri honetako Turismo delegatu ohi eta oraingo Hirigintza zinegotziak egindako akusazioei. Illarramendik esan bezala, Ordoñezek gezurra esan du «nire kontrako vendetta pertsonala egiteko».

DONOSTIA

«Ordoñez jauna egia manipulatu eta gezurretan ari da batera lotsarik gabe. Gezurrak era askotan esan daitezke baina Marugame-ra egindako bidaiak bost milioi pezeta balio zuela esatea erabat faltsua da, bidaiak horrek 1.418.000 pezeta balio izan bait zuen» esan dio EGUNKARIARI Imanol Illarramendik.

Ordoñezen jokaera azaltzeko arrazioiak ere eman dizkigu EAko politikariak. «Nire kontrako vendetta pertsonala izan da, nik neuk gogorazi bait dizkiot Ordoñezi CAT barruko zereginak, hala nola konpromezu guztiak azaldu eta betebeharrak, berak ez bait zien inolako jaramonik egiten. Ondorioz zentsura



SIREICA, aferaren ardatza bihurtu den bidaiaria agentzia

EAko zinegotziak EGUNKARIARI adierazi bezala, bere taldeak «bide legal guztiak» erabiliko ditu Ordoñezen akusazioei aurre egiteko.

botoa erabili egin behar izan genuen» zehaztu zuen Illarramendik.

Auzia herenegun piztu zen, Ordoñezek CAT—Centro de Atracción y Turismo—erakundeari eginko auditoriaren berri eman zuean. Ikerketa ekonomikoa Xabier Albistur alkate ohiak agindu zuen «nire kontra erabil zitezkeen estrai-

neko fakturak eta kontu arraroak aurkitu nahian», Donostiako Udalen Turismo arduradun ohiak esan zuen.

Iturri beraren arabera, «azterketak ez zuen batzuk nahi zuten helburua bete» eta hau dela eta ez zen beraren berririk jakin erazi. Ordoñezek auditoriaren zehaztasunak eskatu diz-

«Ordoñez egia manipulatu eta gezurretan ari da, Marugamera egindako bidaiak ez zuelako bost milioi pezeta balio izan» esan du Illarramendik.

kio Odon Elorza alkate izendatu berriari eta lana eskuratu ondoren Illarramendiren kontrako akusazioak egin ditu, bide batez bere iharduera «garbia» izan dela adieraziz.

Ordoñezek komunikabideei azaldu bezala, 1990. urtean CATeko arduradun moduan egin zituen operazio guztiak argi daude. «Puntu ilun bakarra» esan zuen PPko zinegotziak, bidaiaria agentzietan banatutako lan kopuruari dagokio, SIREICA agentziak CATen fakturazioen % 46 begeranatu bait du. Agentzia hau Illarramendi jaunarena da». PPko politikariak Marugame—Japonia—hirira egindako bidaiak aipatu zuen, bost milioi pezeta balio izan zuela esanez.

«Gezur hutsa da» erantzun du Illarramendik. «Hau ez da horrela geratuko eta gure taldeak bide legal guztiak erabiliko ditu horren aurka».

Osakidetzako Eskaintza Publikoaren erabakiaren atzerapena salatu du ELAK

BILBO

ELA sindikatuko Zerbitzu Publikoetako Federakundeak «zenbait Epaitegiaren atzerapena» salatu du Osakidetzako 1990. urteko Lan Eskaintza Publikoaren aferan. Abenduan izandako oposizio frogetaz buruz ez da oraindik erabakirik hartu, izan ere.

«Ez dugu ulertzen, Epaitegien eskutan dagoen arazo hain larriaren aurrean, Epaitegiaren Lehendakariak azken bileratik hilabete t'erdi behar izatea bilera berri baterako deia egiteko», adierazten da ELAK igorritako prentsa agiri batean.

ELAK erabakiak lehenbailehen

hartu beharra azpimarratu du. «Udako oporren atarian gaude, eta hartu beharreko erabakiak azkar hartzen ez badira, irailean edo agian urrian izan gaitezke gai honi buruzko inolako berririk eduki gabe.

Gaur eguneko egoera eragozkeriaren emaitza bada, prozesu hau behar bezain garbia izan dadin neurriak har ditzala exigitzen diogu Osakidetzari».

ELAren hitzetan, «ulergaitza iruditzen zaigu azterketak orain zazpi hilabete irregulartasunez beteriko prozesu batean egin zituztenek frogetaz buruzko daturik ez izatea eta bere etorkizuneko egoera zein den ez ezagutzeara».



OSAKIDETZAren frogetaz ezer erabaki ez dela salatu du ELAK.

Iruñeko Katedrala berriztatzen hasiko dira datorren urtean

I.I. / IRUÑEA

Gabriel Urralburu Nafarroako Gobernuko Lehendakariak eta José Maria Cirarda Iruñea-Tuterako Artzapezpikuak akordio bat sinatu zuten atzo Iruñeko Katedrala berriztatzeko. Lanak 200 milioi baino gehiago kostako dira eta hurrengo urtean hasiko dira.

Nafarroako Lehendakariak adierazi duenez, gobernuak konstante hartu du Iruñeko katedrala Nafarroako kultura leku eta ondaren historiko garrantzitsuenetakoa dela. «Aspaldikoa da monumentu hau berriztatzeko asmoak» eman du aditzera Urralburuk.

Nafarroako Gobernuak ondaren historiko-artistikoen berriztatze planen barnean, katedralako lanek lehentasuna izanen dute eta egitasmo bat egin da 1992-94 hi-

urtekorako. Horren arabera lanak, aurrekontuak eta epeak zehaztuko dira Kultur Zuzendaritza Orokorrak prestatuko duen dokumentuan.

Urriaren berriro elkartuko dira Gobernuak eta Artzapezpikuak proiektua onartzeko eta katedralako biblioteca, artxibo eta museora zabaltzen den ala ez erabakiko.

Lanak aurrera eramateko Nafarroako Gobernuak aparteko aurrekontua baietsiko du. Hala-ber Kultur Ministeritzari dirulaguntzak eskatuko zaizkio, baina Gabriel Urralbururen ustez «gehiena hemendik pagatu beharko dugu, Gobernu Zentralak asmo onak dituelako baina diru gutxi».

1994ean katedralaren kontsakerazioaren seigarren mendemuga dela eta, nafar arte sakroaren erakusketa bat antolatuko da.

«Andres Goñi» drogaren aurkako sari berria kalean

DONOSTIA

«Andres Aia Goñi» saria sortzea erabaki zuen atzo Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, eta drogomenpekotasunaren aurkako borroka sarituko du. Drogomenpekotasunaren prebentzio, asistentzia eta bergizarteratze lanetan diharduen pertsonari banatuko zaio saria urtero, baita Euskal Autonomi Elkartearen drogomenpekotasunaren arazo larriaz gizartea kontzientziatze lanean ari denari ere.

Andres Aia izena du sariak «drogomenpekotasunaren aurka Andres Aia egin zuen lanagatik» adierazi zuen Carmelo Sainz de la Maza Kontseiluaren idazkariak.

Sariaren gain, hartutako beste erabakia Drogomenpekotasunaren Kontseilu Asesorea sortzea izan da. Tokikomaniaren prebentzio, asistentzia eta bergizarteratze lan egingo duen erakundea izango da aurreantzean. Administrazio publiko eta gizarteko beste taldeen arteko harremanak mantentzeaz ere arduratuko da erakundea laguntza gizarteko arlo guztietara hel erazteko.

Gutxiagoturi buruzko txostena aurkeztu zen atzo Iruñean.

I.I. / IRUÑEA

Gutxiagotu psikikoen gurasoek egoitza eta dirulaguntza gehiago eskatu dituzte bere seme-alabentzat. Iruñeko Donibane auzoko irakasleek, ANFASen (Gutxiagotu Psikikoen Guraso eta Lagunen Elkarte) laguntzarekin, egindako azterketatik atera daitezke. Txostena aurkeztu den egoitza berean ANFASeko zuzendariak diplomak eman zizkien irakasleei egindako lana eskertzeko.

Nafarroako gutxiengo mentala aztertu nahi duen ANFASeko beste lan baten barne dago zentsu hau. Horrela orain arte Zangotza, Baztan eta Tafallako zentsuak egin dira eta Tuterakoa ere aurrera doa. Donibane auzoko ikerketa egiteko 62 gutxiagoturen familiarekin elkarrizketatu dira. Oraingo gurasoak bere seme-alaben etorkizunaz kezkatuta daude bereziki eta egoitzak eta dirulaguntzak eskatzen dituzte erakundeei, beraiek hiltzen direnean behar dena izan dezaten. Elena Etxegoien ANFASeko langile sozialak adierazi duenez «ez dugu ulertzen nola Nafarroko Gobernuak Gizarte Ongizate Zerbitzuak lan egin dezakeen gutxiagotuen zentsurik gabe.

OIONGO SAN VICENTE IKASTOLAK

ZUZENDARIA BEHAR DU

Ingeles tituluduna

Bidali kurrikuluma uztailearen 10a baino lehen

Fueros z/g. / 01320 OION / Tfna.: (941) 11.02.06